


Gizarte Hezkuntza Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

DONOSTIA | SAN SEBASTIAN



II. MODULUA

HEZKUNTZA LANBIDEAK

Moduluko gida

AURKIBIDEA

MODULUAN LANDU BEHARREKO KONPETENTZIAK	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK II. MODULUAN	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
GARAPEN IRAUNKORREKO GAITASUNAK	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
MODULUKO IRAKASGAIAK	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
DIZIPLINARTEKO LANA	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
EGIN BEHARREKO LANA	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
METODOLOGIA	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
IKASGAIEEN EKARPENA DILAN-ARI	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
1DILANA BURUTZEKO PROZEDURA	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.1
EGUTEGIA	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.2
TXOSTENAREN EGITURA	133
DILAN-AREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.4
ADIMEN ARTIFIZIALA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.5

MODULUAN LANDU BEHARREKO KONPETENTZIAK

1. Gizarte-, hezkuntza esku-hartzeen eta horien jarduera profesionaleko esparruaren oinarri pedagogikoak eta arauemaileak ezagutzea eta ulertzea, nazioarteko ikuspuntutik.
2. Pedagogogoaren eta hezitzailearen esanahia eta ezaugarri nagusiak zehaztea, gaur egungo munduko hezkuntza-lanbideekin lotuta.
3. Hezkuntza-iritzia ekoiztea, printzipio etiko eta deontologikoetan oinarritua, eta giza eskubideei, genero-ikuspegiari eta profesionalaren erantzukizunari lotuta.
4. Komunikazioaren oinarrizko elementuak identifikatzea taldeen testuinguruan; hartara, hezkuntza-harreman egokia ezartzeko eta ikasketa-dinamikan bertan txertatutako hezkuntza-harremana ezartzeko, garapen pertsonalari eta taldekoari zuzendutakoa.
5. Jendaurrean, ahoz, gizarte eta hezkuntza eremuko gaiei buruzko ideiak, argumentuak eta abar komunikatzeko gai izatea, baliabide didaktikoetan oinarrituta.
6. Txostenak behar bezala arrazoituta idaztea eta horretarako ezarritako irizpide formalak erabiltzea.
7. Ikasketako jarduerak eta lanak egiteko jarrera positiboa izatea.
8. Lan-taldeetan modu arduratsuan eta etikoan lan egitea, lan-taldeen ahalmena azpimarratuz eta zailtasunak hautematea eta ebaztea nabarmenduz.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK II. MODULURAKO

1. Pobrezia desagertzea.
3. Osasuna eta ongizatea.
4. Kalitatezko hezkuntza.
5. Genero-berdintasuna.
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.
10. Desberdintasunak gutxitzea.
11. Hiri eta komunitate iraunkorrak.
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.
16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak.
17. Helburuak lortzeko aliantzak.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO GAITASUNAK

SOST 1- Ezagutzaren kontestualizazio kritikoa, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arazoekin, tokiko arazoekin eta/edo arazo globalekin loturak ezarriz.

SOST 2- Baliabideen erabilera iraunkorra eta natura- eta gizarte-ingurunearen gaineko inpaktu negatiboen prebentzioa.

SOST 3- Iraunkortasuna sustatzen duten prozesu komunitarioetan parte hartzea.

SOST 4- Iraunkortasunaren balioekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea portaera pertsonaletan eta profesionaletan.

1. Ikuspegi historikoa eta egungoa du, eta ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-arazoen izaera sistemikoa ulertzen du, bai eta horien arteko loturak eta etorkizuneko erronkak ere, tokian-tokian zein ikuspegi globalean.

Jakitea

C1.HO.1.2. Tokiko nahiz mundu osoko gizarte-, ekonomia- eta/edo ingurumen-arazoetan inplikaturako kausa, ondorio eta subjektu nagusiak ezagutzen ditu.

C1.HO.1.3. Arazo horietarako proposaturako konponbideak ezagutzen ditu (adibidez, 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuak, IPCC txostenak).

Nola jakin

C1.HO.2.1. Iraunkortasunaren dimentsioei buruzko gogoeta kritikoa egiten du bere lanbide-eremuarekin lotutako egoera baten azterketan.

C1.HO.2.2. Gizarte- eta ingurumen-arazoen konplexutasuna eta horien konponbideak ulertzen eta aztertzen ditu (nekazaritza iraunkorra, berdintasun-politikak, lan duina, energia-eraginkortasuna eta -nahikotasuna, ekonomia iraunkorra, gobernantza parte-hartzailea...).

2. Gai da bere lanbide-jarduerak ingurumenean, gizartean eta ekonomian duen eragina detektatu eta aztertzeko, bai eta jarduera iraunkorrak proposatu, diseinatu, antolatu eta gauzatzeko ere.

Jakitea

C2.HO.1.1. Oinarrizko ezagutzak ditu hezkuntza-jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzeko.

C2.HO.1.5. Bere lanbide-eremuko proiektuetan justizia soziala baloratzeko irizpideak ezagutzen ditu (adibidez, ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).

Nola jakin

C2.HO.2.1. Badaki kritikoki baloratzen hezkuntza-jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eragin negatiboak.

C2.HO.2.2. Planteatutako arazo baten aurrean, badaki hainbat hezkuntza-proposamen aztertzen eta ebaluatzen eta jasangarriena erabakitzen.

C2.HO.2.4. Badaki bere lanbide-eremuko proiektuetan gizarte-inpaktua baloratzeko irizpideak eta tresnak erabiltzen (adibidez, ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).

Egiten erakutsi

C2.HO.3.5. Bere proiektuetan kontuan hartzen ditu eragin soziala baloratzeko irizpideak eta tresnak (adibidez, ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).

3. Gai dira prozesu komunitarioetan parte hartzeko, herritartasun globalaren ikuspegitik, eta beren esparru profesionaletik diziplinarteko proiektuetan lan egiteko, gizartea trantsizio iraunkorretara bideratzeko.

Jakitea

C3.HO.1.1. Iraunkortasunarekiko partaidetza eta konpromisoa sustatzen duten hezkuntza-proiektu, -programa eta -sare komunitarioak ezagutzen ditu.

C3.HO.1.2. Iraunkortasun-proiektu batean parte hartzen duten subjektuen lankidetzak sustatzeko teknikak eta tresnak ezagutzen ditu.

Frogatu eta egin

C3.HO.3.2. Iraunkortasuneko proiektu edo erronka batean, diziplinarteko taldeetan lankidetzak sustatzeko teknikak eta tresnak erabiltzeko gai da.

4. Jasangarritasunaren printzipio etikoen arabera eragiten du, bai arlo pertsonalean, bai profesionalean (adibidez, kalteen prebentzioa, erantzukizuna oraingo eta etorkizuneko belaunaldien aurrean, giza eskubide sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak).

Jakitea

C4.HO.1.1. Lanbide-eremuan iraunkortasunarekin lotutako arazo etikoak ezagutzen ditu (adibidez, desberdintasuna, kontsumismoa, diskriminazioa...).

C4.HO.1.2. Lanbide-eremuan iraunkortasuna oinarritzen duten printzipio etikoak ezagutzen ditu.

C4.HO.1.3. Ezagutzen ditu gizarte-konpromisoaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren kontzeptuak, aukerak eta mugak.

C4.HO.1.4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza (GIH) oinarritzko eskubidetzat jotzen du mundu ekologikoagoa, bidezkoagoa eta baketsuagoa lortzeko.

Egiten jakitea

C4.HO.2.1. Iraunkortasunaren printzipio etikoek bere esparru profesionalean dituzten inplikazioak identifikatzeko eta kritikoki balioztatze gai da.

Frogatu eta egin

C4.HO.3.1. Lanbidean jarduteko gai da, iraunkortasunaren printzipio etikoak kontuan hartuta.

II. MODULUAREN IRAKASGAIAK

IKASGAIA	IRAKASLEA	PROGRAMAREN LINKA
Hezkuntza Komunikazioa eta Harremanak	AINGERU GUTIERREZ-CABELLO ANE OLABARRIA MOREJON	Sartu hemen
Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak	AMAIA AGIRRE	Sartu hemen
Identitate eta Garapen Profesionala	ITSASO AROCENA ANE OLABARRIA MOREJON	Sartu hemen
Hezkuntza Legeria eta Nazioarteko Ikuspegia	MAIDER DELGADO OLLO IKER PEREZ ZAMORA ANE OLMEDILLO BERASATEGUI	Sartu hemen
Pedagogia: Teoria eta Hezkuntza Erakundeak	ANA EIZAGIRRE SAGARDIA HILARIO MURUA CARTON	Sartu hemen

DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

Lehenengo moduluko lanei jarraipena eman nahian DILAN-ren arabera antolatzen diren Gizarte Hezkuntza eta Pedagogia II. Moduluko lan praktikoen koordinazioa aipatu Moduluan aritzen diren irakasleen artean burutuko da.

Europar hezkuntzaren birmoldaketarekin batera, graduetako lehenengo ikasturtean, hala Gizarte Hezkuntzan nola Pedagogia eremuan lan egiteko prestatu behar direnentzat arlo haietarikoko gako orokorrak eskaintzeaz gain, esparru haiei dagozkien errealitatearen funtsezko ezaguerak eta hezkuntza testuinguru haietan lan egiteko behar diren gaitasunetan sakontzea nahi da.

Horrela, galderetan oinarritutako ikaskuntza partekatua eta praktikari eginiko ikerketaren bidezko ezaguera landuko dugu. Modulu honekin, bada, hezkuntza arloan ariko diren langileei zuzendutako lan-aurreko praktikak eta beharrezko ezagutzak eskuratzea ahalbidetu nahi da.

Horretarako, bada, DILANaren bidez sortutako hausnarketan ikasketa kritikoa bezain gogoetatzailea ere bultzatuko da, egun suertatzen ari diren gizarte aldaketei (kulturan, ekonomian edota legedian) aurre egin ahal izateko gauza izango dena.

Bi kasutan DILAN-k salbuetsita daude; bata; modulu berean 3 irakasgai baino gutxiagotan matrikulatuta izanik; bestea, 3 irakasgai edo gehiagotan azken froga eskatzen duten ikasleek, EZ dute DILANa egin beharko (ikusi eranskina). Hala ere, ebaluazio jarraiari uko egiten dieten ikasleek ere aukera izango dute, nahi izanez gero, DILAN-a taldean eta modu interdiziplinarrean egiteko.

DILAN-a egiten ez duen ikasleak irakasgai bakoitzaren azken froga horretan, irakasleak aukeratutako frogak, testak, azterketa mota, aurkezpenak edo/eta praktikak egin beharko ditu, irakasgaien eta moduluan eskuratu behar diren edukien ezagutza, ikaskuntza emaitzak eta gaitasunak bermatzeko, DILAN-ean lantzen diren gaitasun horiek ebaluatuak izan daitezzen.

1. Irakasgaien nota izateko DILAN-a egin behar da.
2. DILAN-eko nota ikasturte bateko bi deialdietan mantentzen da baina ez da hurrengo urterako nota gordetzen edo mantentzen.

EGIN BEHARREKO LANA

Bigarren Moduluaen Jarduera Diziplinarrekoan zera egin beharko da, txosten idatzia analitikoa. Bertan, hezkuntza arloko profesionalen esperientzia azalduko da testuingurua kontutan izanik eta moduluko bost gaien ekarpenak barneratuz..

Lanak galdera bati erantzun behar dio, argudiatuz betiere. II Moduluko galdera honako hau da:

GURE TESTUINGURUAN HEZKUNTZA ARLOKO
PROFESIONALEK NOLA BIZI, PENTSATU ETA LAN EGITEN
DUTE?

METODOLOGIA

Galdera honi erantzuteko hezkuntza arloan lanean ari diren bi hezkuntzako profesionali elkarrizketa sakona egingo zaie eta hau osatuko da beste iturrietatik jasotako informazioarekin (Bibliografia, Web-ak,, etab).

IKASGAIEN EKARPENA DILAN-ARI

Hezkuntza Legedia eta Nazioarteko Ikuspegia

Ikasgai honetatik modu honetara elikatuko dugu DILAN-a, azpimarratuz estatuko, autonomietako eta nazioarteko hezkuntza legediek eta baita nazioarteko erakundeek ekarpenek hezitzailearen garapen profesionalean izan duten garrantzia. Proiektuan zehar ezagutu eta aztertuko dugu:

- Nola bizi izan duten arloko profesionalak hezkuntza legedian egon diren aldaketak eta zer eragin izan duen hauen eguneroko lanean.
- Nazioarteko erakundeek ekarpenek, zer eragin izan dute hezkuntza arloko profesionalen lanean, zuzenean edo zeharka.

- Ezagutzen al ditu beste hezkuntza sistemak? Erreferenteak al dira bere lanean eta bere garapen profesionalerako?

Bakarkako hausnarketa eta taldearen ekarpena kontutan izanik zera egingo da

- Profesionalek bere irakaskuntza-ibilbidean ezagutu dituzten legedi ezberdinak sailkatu
- Nazioarteko erakundeek ekarpenak identifikatu.
- Beste hezkuntza sistemen ekarpenak aurkitzen saiatu.

Identitatea eta lanbide garapena.

Hezitzaile profesionalen profila pertsonala eta profesionalari buruz gogoeta eta sintesi lan bat garatuko dugu, halaber beraien esperientzia eta garapen profesionalari buruz. Hona arakatuko ditugun informazio guneak:

- Hezitzaile profesionalen ezaugarriak, berdintasun eta ezberdintasunak.
- Profesioaren testuingurua. Hezkuntza esparruko beste profesionalekin dituzten harremanak.
- Beraien eguneroko zereginetan erabiltzen dituzten lanabes eta estrategiak.
- Bere ekintza profesionalaren oinarri deontologikoak.
- Etorkizuneko ekintza profesionalaren garapena; bizitza profesionalean zehar egindako eta egiteko ibilbidea.

Banaka eta taldean landuko duguna da:

- Etorkizuneko ekintza profesionalaren garapena; bizitza profesionalean zehar egindako eta egiteko ibilbidea.

Giza Eskubideak eta Gizarte Politikak

Giza Eskubideak eta Gizarte Politikak izeneko ikasgaiak gizartearen esku-hartze arloan ematen den giza eskubideen garapenari buruzko jakin-mina elikatu nahi du. Honako prozedura eta gai hauei kasu egingo zaie:

- Gizartearen esku-hartze arloan ematen den giza eskubideen garapenari (ikuspegi diakronikoa)
- Ongintzatik gizarte laguntzarako edota sorospenerako bilakaera eta ongizatearen estatu garaikideak (ikuspegi sinkronikoa)
- Aipatu ongizatearen estatu garaikidearen krisialdiak eta ondoriozko heziketa paradigmen birmoldaketa (ikuspegi prospektiboa)

Taldean analitikoki landuak eta banakako sintesian aurkeztuak honako ardatzen baitan:

- Datu bilketatik ondorioztatutako informazio esanguratsuak hurrenkeraren arabera zehazturik.
- Gaitasun teknikorako balekoak diren ekarpenen ebaluazioari bidea emanez.

Pedagogia: Teoria eta hezkuntza erakundeak

Gure ikasgaiaren murgilduta, DILAN-ari egingo diogun ekarpena, hezkuntzaren teoriaren kontzeptuak argitzea izango da jardun hezitzailean. Gainera, heziketaren esparru formal, ez-formal eta informalak mugatuko ditugu eta testuinguruan agertu eta nagusitzen diren lanbidearen ildo teoriko-hezitzaileak aztertuko ditugu.

- Hezitzaileak bere lana burutzeko beharrezkoak dituen oinarritzko kontzeptu teorikoak.
- Jardun hezitzailearen esparru formal, ez-formal eta informalak antzematen jabetzea.
- Behatu eta aztertzen ari garen jarduna zein ikuspegi teorikotan koka edo sailka dezakegun hausnartu.

Banaka eta taldean landuko duguna da:

- Egileen teoria eta definizioak, hauen ulermena, analisia eta adierazpenean sakonduz.
- Gure eguneroko zereginetan, esparru hezitzaileen mugaketa finkatu, ondoren jardun hezitzailean antzemateko.

Komunikazioa eta hezkuntza erlazioa

Gure ikasgaitik modu honetara elikatuko dugu DILAN-a: gaur egun bizi garen testuinguruan hezitzaile batek behar dituen komunikazio –eta harreman-trebetasunen inguruan laburpen eta gogoeta lan bat egin beharko dute ikasleek. Ondoko informazio ildoak aztertuko ditugu geure ikasgaiaren begiradapetik egingo ditugun galderen bidez::

- Pertsonekin (ikasleekin, hezigaiekin, lankideekin, erabiltzaileekin...) egin behar duen lanari ekiteko hezitzaileak behar dituen komunikazio alderdi esanguratsuak
- Komunikazio positiboa nahiz harreman egokia bideratzen laguntzen dioten estrategien zein tresnen azterketa.
- Harreman eta komunikazio-trebetasunak laburtzea eta ordenatzea. Lan eremu askotarikoen artean erkatzea (gizarte hezkuntza eta pedagogia).

Banakako gogoeta. Talde-azterketa.

- Testu batean honako hau ordenatu beharko dute: hezitzaileen oinarritzko harreman eta komunikazio-trebetasunak, baita profesional horiek ematen dieten balioa ikasleek erabili dituzten informazio-iturriak aintzat hartuz. Horrekin guztiarekin txosten bat osatuko dugu DILAN-aren txosten orokorrari ekarpena egiteko (DILAN dokumentua).

DILAN-A BURUTZEKO PROZEDURA

ASTEA	IKASGELAN	LAN EZ-PRESENTZIALA	EMAITZA
17	DILAN-aren aurkezpen orokorra otsailaren 3an eta taldeak osatzea. Taldekide kopurua: 4-5koak		Taldeak antolatzea eta tutoreak izendatzea.
21	Elkarrizketarako gidoia sortu. Galdekizunaren item multzoak, bere baitan bilduko ditu ikasgai guztiei dagozkien galderak modu aski eta orekatuan, bakoitzetik sortutako galderak erantzuteko.	- Gidoirako galdegaiak bakarka prestatu. - Galderak antolatu eta gidoia eraiki, hurrenkera finkatuaz. - Froga bat egin ikaskideren batekin, galderen ulergarritasuna finkatzeko..	Elkarrizketa burutu ahal izateko gidoia prest
24 - 25		1. Elkarrizketa burutu. Alderdi esanguratsuenak bildu eta eskolan komunikatzeko landu.. 2. Transkribaketa burutu, elkarrizketan bildutako oharra garbira pasa. 3. Alderdi esanguratsuak identifikatu eta komunikatzeko prestatu.	Grabaketa, oharra, ea.
27	Analisia talde handian. Ikasgai bakoitzeko saio bat erabiliko dugu. Lantaldeek eskuratutako informazioa konpartitzea da helburua, galderak argitzea eta informazioa nola aztertu lantzea		Grabaketaren edo/eta oharren transkribaketa egitea
28 - 29		Informazioaren gainerako analisia burutu eta ondorioak idatzi	Tutoreari lan idatzia entregatu, behin-behineko alea 14. astean.
30	DILAN-aren galdera eragiletik eratorritako erantzunen ondorioak aurkeztu	Gainerako aurkezpenen balorazioa egin klasean	Idatzizko hausnarketa azken txostenean txertatu.
31*			Behin betiko entrega
Orduak guztira:	7,5 ord. Ikasgaiko. 37,5 ord. DILAN guztira	15 ord. Ikasgaiko. 75 ord. DILAN guztira	22,5 ord. = 0,9 kreditu 112,5 = 4,5 kreditu
Balorazioa	DILAN-ean talde-lanean lortutako nota, ikasgai bakoitzaren notaren 1.5eko balioa du. Honen puntu bat txostenari dagokio eta 0.5 puntu aurkezpenari.		

EGUTEGIA

Itzalarekin azpimarratuta dauden egunak erabiliko ditu ikasgai bakoitzak DILAN-a lantzeko

ASTE A	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
16	Urtarrilak 26	27	28	29	30
17	Otsailak 2	3	4	5	6
18	Otsailak 9	10	11	12	13
19	IRAKASKUNTZA GABE	IRAKASKUNTZA GABE	18	19	20
20	Otsailak 23	24	25	26	27
21	Martxoak 2	3	4	5	6
22	Martxoak 9	10	11	12	13
23	Martxoak 16	17	18	JAI -EGUNA	19
24	Martxoak 23	24	25	26	27
25	Martxoak 30	31	Apirilak 1	JAI -EGUNA	JAI -EGUNA
	JAI -EGUNA	IRAKASKUNTZA GABE	IRAKASKUNTZA GABE	IRAKAS KUNTZA GABE	IRAKASK UNTZA GABE
26	Apirilak 13	14	15	16	17
27	Apirilak 20	21	22	23	24
28	Apirilak 27	28	29	30	JAI -EGUNA
29	Maiatzak 4	5	6	7	8
30	Maiatzak 13	14	15	16	17

TXOSTENAREN EGITURA

1. Sarrera

- Galdera eragileak: Zer dira Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza? Zertan lan egiten dute peagogoeak eta gizarte hezitzaileak?
- Lanaren helburua berreskuratu: gure testuinguruan, nola bizi, pentsatzen eta jokatzeko dute hezkuntzako profesionalek?
- Lana nola antolatuta dagoen deskribatu, galdera horiei erantzun ahal izateko.

2. Prozedura metodologikoa.

- Nola jarri zarete harremanetan profesionalekin? Zer hautaketa irizpide jarraitu duzue? Zer harreman duzue haiekin? Nola jaso dituzue testigantzak? Nola prestatu duzue giroa? Zer trebetasun garatu dituzue? Zer baliabide erabili dituzue?

3. Elkarrizketarako galderak egitea.

- Nola iritsi zarete galdera multzora? Nola elikatu ditu ikasgai bakoitzak galderak? Zeintzuk dira?

4. Elkarrizketen analisia eta hausnarketa.

- Profesionalen aipuak tartekatu behar dira, eta lekukotza horiek analisia mamituko dute. Aztertzeak gaiak:
 - a. **Profesionalen aurkezpena eta ezaugarriak:** nor diren, nolakoak diren, non eta nola lan egiten duten bere eremuetan.
 - b. **Ikasketak eta prestakuntza:** zer hezkuntza-ibilbide dituzten, prestatzen jarraitzen duten, zer gabezia/indargune dituzten, zer desberdintasun eta antzekotasun dituzten.
 - c. **Lan-eremua ezagutzen:** nolakoa den lanean duen egunerokotasuna eta nola lan egiten duen (emozioen eta gatazken kudeaketa, lan-metodologia, kolektiboen arteko desberdintasunak, lan-baldintzak).
 - d. **Lana eta bizitza pertsonala:** ikuspegi pertsonalago batetik, hezitzaileen alderdi sakonago batean arakatzea, arlo pertsonalaren eta profesionalaren arteko loturak bilatuz.
 - e. **Bestelako gaiak:** zein diren esperientziak haiengan utzi dituen ikaskuntzak. Baliteke goiko puntuetan sartzen ez diren gaiak egotea (kategoria emergenteak jaso).

5. Ondorio orokorrak

6. Egindako lanaren talde-balorazioa eta balorazio pertsonalak.

7. Erabilitako erreferentziak (Bibliografia, internet, etab.).

8. Eranskinak (Elkarrizketetako Gidoia/k eta Transkripzioak).

- Aurkezpen arauak:

- Tarteak: 2.5 guztian: goi, behe, ezker, eskuin.
- 30.000 karaktere kopurua gutxi-gora-behera.

MODULUAREN JARDUERA DIZIPLINARTEKOAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Gaiarekiko egokitasuna: txostenaren edukiak aipatutako gaia era koherente eta osatuan landu behar du, soberakinik gabe. Era berean, haserako galderari erantzun behar dio.
2. Informazioaren antolakuntza: informazioak ongi taxutua egon behar du (dokumentuan azaltzen den estrukturari jarraituz). Taulak eta grafikoak ongi eratu, zenbatu eta titulatuak egon behar dute. Informazioa, lortutako datuak, erraz bilatu beharko dira.
3. Ondorioen integrazioa eta justifikazioa. Ondorioek arazoaren ikuspuntu orokorra azaldu behar dute eta emandako datuetan oinarrituta egon behar dute. Ondorioen oinarrizko argudioek argiak eta koherenteak izan behar dute.
4. Idatziaren adierazpena eta zuzentasuna unibertsitatean eskatzen den mailari erantzun behar dio, bai idatzizko azalpenetako arlo formalari dagokionez, bai ortografia, aipuak, erreferentzi bibliografikoak...), bai kohesioa eta koherentziari dagokionez.
5. Lanaren ahozko aurkezpena prozesuaren atal garrantzitsua da (erregistro egokia, taldearekiko egokitzapena, taldekide guztien parte-hartzea, irakasleen edo ikaskideen galderei erantzun egokia ematea, aurkezpen denbora errespetatzea...)
6. Autoebaluazioa. Autoebaluazioan ikaskuntza prozesuari buruz, haren barneratzeaz eta hobekuntzarako ateratako ondorioei buruz egindako hausnarketen kalitatea balioztatuko da.

Azken ebaluazioak ikasgai bakoitzari dagokion atalaren oniritzia izan behar du.

ADIMEN ARTIFIZIALA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

- 1) Adimen Artifizial sortzaileko tresnen erabilera azkar hedatzen ari da esparru akademiko eta zientifikoan. Testuinguru horretan, EHU adimen artifiziala erabiltzeko printzipio eta gomendioak izeneko dokumentuan xedatzen denez, irakasgai/GRAL/MALetan aurkezten diren lan eta jardueretan AA sortzailea erabili bada, nahitaezkoa da horren berri ematea, dokumentuaren I. eranskinean azaldu legez.
- 2) Teknologia hauen erabilera arduratsua bermatzeko, komeni da lan akademiko eta ikerketa lan guztietan honako hau betetzea: (1) era esplizituan adieraztea AA sortzaileko zer tresna erabili den (izena, bertsioa, data...) eta argi azaltzea zer funtzio izan duen lana egiteko prozesuan; (2) AA sortzailea laguntza baliabide gisa soilik erabiltzea, inola ere norberaren lan intelektuala ordeztu gabe, eta behar bezala aipatzea zeintzuk diren sarrerek (prompts) eta lortutako emaitzak, baldin eta horiek lanean txertatu badira. Jarraibideen gainean zalantzarik edukiz gero, aztertu aipatu dokumentuaren I. Eranskina.
- 3) Mota honetako tresnak bidegabe erabiliz gero (esaterako, era automatikoan sortutako edukia berrikusi eta egokitu gabe, edota erreferentziarik gabe txertatuz gero), ulertuko da urratu egin dela UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloa, eta horrek ondorio akademikoak eragin ahalko ditu.

Dokumentu honen egileak: Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzako II. Moduluko irakasleak diren Amaia Agirre, Ane Olmedillo, Aingeru Gutierrez-Cabello, Itsaso Arocena, Ane Olabarria, Hilario Murua, Ana Eizagirre, Iker Perez eta Maider Delgado, Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza graduetako koordinatzaileak diren Joxi Imaz eta Itziar Rekalde (2025-2026 ikasturtea).